

Espainiako Kopako lider da Oskar Garro txirrindulari igorretarra

14. orrialdea

Zeanuriko Errotarik Errota ibilaldia, maiatzaren 7an

Urtekeran, Fermin Pujana Olabarrikoaren oroitzapen ekitaldia egingo da. Ibilbide bi dagoz; luzea, 18 km-koa eta laburra 12 km-koa. Urtekerea 09:00etan izango da plazan eta izen-emotea ordu erdi lehenago zabalduko da. Bederatzi erroten ondotik pasetan da ibilbidea. **8. orrialdea**



Udabarria Bertotan Txapelketako saioa jokatu da Diman

17. orrialdea

Ganadua ikusgai egongo da Zeanuriko San Isidro Azokan

Maiatzaren 13an egingo dabe Zeanurin, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokaren 40. edizioa. Urtero lez, behiak, behorrak, ardiak, ahuntzak eta beste ganadua aparkalekuan egongo dira ikusgai goiz osoan. San Isidro egunean, astelehenean, idi-probak egongo dira. Abesbatzak, erromeria, dj-a eta umeentzako ekintzak be badagoz jai egitarauan. **10. orrialdea**



Argazkia: Jon Urutxurtu.

Lemoakustik Fest hilaren 13an izango da



Hilaren 13an izango da Lemoan aurtengo Lemoakustik Festen edizioa. Olaia Inziarte, Audience, Ghau, Mugan eta Maria Vaquerizo dira kartela osotzen dabena. 2017an sortu zan Lemoakustik Fest, jai eremutik kanpo herrian musika eskaintzea indartuteko helburuagaz eta pisua hartzean joan da musika egutegian. **9. orrialdea**

UBIDE

Garagardao artisaua eta kontzertuak egongo dira Ubiden hilaren 13an

Ubier, garagardao azokea, 17:00etatik aurrera izango da; kontzertuak, barriz, 18:00etatik aurrera. Eskupitajo, Negra Cucaracha Terrorfolk, Penny Fleck eta Dube taldeek joko dabe Ubiden eta ostean dj-a egongo da musikea ipinten. **7. orrialdea**



AREATZA

Ganadua, mendi lasterketea eta musika asko Karpoko jaietan

Jai egitarau potoloa prestatu dabe Areatzako Karpoko jaietan, maiatzaren 6 eta 7ko astegoienean jaiak ospatuteko. Urteroko ganadu azokeaz gainera, lehenengoz, Upo Galapan mendi lasterketea jokatu da eta estilo askotako musika emonaldi ugari egongo dira, tartean Areatzako Banda, Arantzarte eta txistulariena. **7. orrialdea**



LEMOA

Maiatzaren 8tik 14ra izango da Memoria eta Kultura Astea

Umorezko bakarriketa batek zabalduko dau maiatzaren 8an Lemoako Kultura eta Memoria Astea, eta Lemoakustik Fest jaialdiak zarratuko dau domekan, hilak 13. Memoriaren inguruko jardura bik eta bost kultur ekintzak osotuten dabe programazioa.

Lemoako Udalak eta Arte Ederren Fakultadeak lehiaketa bat antolatu eben Lemoako Memoria Historikoan oinarrituta, eta proiektu artistiko irabazlea aurkeztuko dabe maiatzaren 12an.

Antzerkiak, ikuskizunak eta kontzertuak osotuko dabe kultura eskaintzea. **5. orrialdea**

Literatura txokoa

BAR GLORIA

Bar Gloria da Nerea Ibarzabalen lehen nobelea. Markinara bertolaritza munduan eta kazetaritza be sano ezaguna da.

Bar Gloriako ate gainean zintzilik dagoan diseatutako idi buru batek emongo deusku ondoetoria. Ibarzabalek sortu dauan unibersoko jagole, zaharkitua eta denporan urrun lotu dan estetika eta mundu tradizionalaren isla be bada, liburuko protagonistek lez, hautsa eta koipea bereganatu di-tuan animalaren burua.

Esango neuke personaiei ar-teko komunikazio ezak eta gi-zonkeriaren indarkeriak sortutako giro itogarriaren deskribapena eta kritikea dala liburuaren ardatz nagusia. Lopetegi familiak go-bernetan dau Bar Gloria. Ahiztak

diran Ana eta Rakelek barran egiten dabe behar ia-ia etxekoa dan Migelegaz batera, eta Bizenta, euren ama, suetean ibiltan da. Domeketan beste senideek be lagunduten dabe negozioan. Alkarrerri sentimentuak adierazoteko zailtasun handia igarten da hasikeratik: Anak ez deutso Rake-leri kontetan herriatik alde egiteko asmoa daukanik, Rakelek Anari ez deutso bera joateak emoten deusdan bildurraz berba egiten, Migel ez da jasan dauan erasoaz Bizentagaz berba egiteko gai, Bizentak gurago dau Migel suetean sartu Elias tabernatik bota baino, Patxik Rakel gogortu hartzean dau eta gogorra da beragaz... Holan isildutako berba askok os-tzen dabe euren mundu hau eta

euren artean isiltasuna nagusi-nagusi da. Horretan, jakina, an-drek matxismoa be sufridu behar.


Bar Gloria tabernea da liburuko gune nagusia. Bertan batzean dira personaia gehienak eta ber-tan pasetan dabe denpora tarte handiena. Tabernako hormek, zelaiko zerratsak eta idi buruak, gainera, personaiek isiltzen da-ben guztiaren lekukoak dira.

Denporea modu interesgarrian baliatzen dau markinarrak, aurre-ra-atzerako saltuak egiten eten barik egiten dauz eta. Bestalde, atal bakotzak eszena oso bat beteten dau. Hori dala-ta, esan geinke liburua sano filmikoa dala.

Bar Gloria gustura irakurten dan liburua dozue, gomendagaria. Idazleak giro berezia sortzean

jakin dau, idaztanka dotoreagaz egina gainera, eta ha sasoia bizi izan ez dabeneztat jakingarri aberatsa izan leiteke, beste sasoi baten, 1970eko edota 1980ko hamarkaden bueltan zelango bizi-modua genduan ikusgarri.

Ane Miren Rilo



Nerea Ibarzabal Salegi

Bar Gloria

Susa argitaletxea, 2022

192 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

<p>Larrialdiak Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 SOS DEIAK 112 Guardiako farmaziak 09:00etatik 22:00etara Maiatzaren 1etik 7ra Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1 Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820 22:00etatik 09:00etara Gutierrez. Amorebieta-Etxano. Maiatzaren 8tik 14ra Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27 Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154 22:00etatik 09:00etara Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano. Maiatzaren 15etik 21era Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15 Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908 22:00etatik 09:00etara Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano. Zeberioako ez dau guardiarik egiten. Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.</p> <p>Medikuak Arantzazu: 94 600 74 63 Artea: 94 673 92 11 Areatza: 94 631 71 52 Bedia: 94 631 34 13 Dima: 94 680 19 74 Igorre: 94 600 74 63</p>	<p>Lemoa: 94 631 31 16 Ubide: 945 45 03 61 Zeanuri: 94 673 91 49 Zeberio: 94 648 01 85</p> <p>Udaletxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79</p> <p>Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / mankomunitatea.arratia@bizkaia.org Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea 94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com Areatzako Parketxea 94 673 92 79 IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus Areatzako Notariatza 94 673 92 26 Errota Fundazioa 688 854 543 / info@errotta.eus Arratiako Musika Eskola 94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu</p>	<p>Bizkaibus 94 612 55 55 3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era. Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo. 3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo. Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduo. 3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduo. Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduo.</p>	<p>Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo. 3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin. Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordukin behin. *08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzean dira. Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo. 3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik) Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik. Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik. 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik. Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.</p>	<p>Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40. Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00. Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40. Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean. Ugaotik Igorrerara. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean. Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10. Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.</p> <p>La Union 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean. Gasteiz-Bilbo Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.</p>
--	--	--	--	---

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Inigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Inigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa) eta Asier Jugo (Arantzazu, Areatza eta Artea). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke **Creative Commons Aitortu Partekatutako lizentziaren bitartez (CC-by-sa)**. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXIV). Kale berbakunea sustatu guran

AURREKO ZENBAKIKO ARIKETEN ERANTZUNAK:

Sano gustetan (jata) **jatak** oingo sasoia, hainbat zugatz loran (dagoz) **jauzak** eta.

Hik esan (dozu) **dona** oin egia arrabatxoa, (ez daukagu) **etxekune** begiak zabalduetea baino, gure inguruak zoragarriak dirala ikusteko. Ze izango (litzateke) **litikona** mundua lora barik.

Ba (ez dakit) **etxakiat** baina, lorarik egongo (ez balitz) **ezpalitzok** poz gitxiago egongo (litzateke) **litikok** ziur.

ERETXIA

Eskola publikoa danona eta danontzat!

Aspaldi honetan, kezkatuta gagoz Eusko Jaurlaritza zerbitzu publikoak desegiteko egiten dabilan ahaleginagaz eta bere politika neoliberalen aplikazioagaz; sinistu arazo gura deuskun arren tiroak ez doazela hortik eta zerbitzuak teknologia eta behar barrietara egokitzen dabizela (Osakidetzan, batez be).

Behin hori esanda, Hezkuntza publikoan ipini gura dot arretean, hobeto ezetuten dot-eta aspalditik, 1980ko hamarkadan nire seme-alabak D ereduko ikastetxe publiko baten eskolatu gura izan nebazanetik. Sasoi haretan, gatxa zan, Bilbo, eremu euskalduntzat ez zalako hartzean eta euskerazko irakaskuntza aukeratu ezker, ikastolea baino ez egoalako, baina nik argi neukan nire seme-alabek auzoan ikasi behar ebela, auzoko umeakaz, eta euskeraz. Familia gehiagok eskatzen eben gauza bera, eta holan lortu genduan Bilboko lehenengo D eredua Txurdinagako eskolan, eta apurka-apurka Bilboko eta IEEko gainerako eskola publikoetara zabaldu zan.

1993ko zezeilean, Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legea onartu zan, gaur egun indarrean dagoana. Seguruenik, artikulu hau argitaratzen danean, Hezkuntza Lege proiektu barria onartuta egongo da. Besteak beste, artikulu honeek jasoten ebazan legeak:

-Euskal eskola publikoaren zentro bakoitza, plurala, elebiduna eta demokratikoa da, euskal gizartearen zerbitzura dago, bere ingurunean zuzturtuta dago gizartearen eta kulturaren, parte hartzean dau, desbaidintasunak konpensean ditu eta aniztasuna integretan dau.

-Ikasle guztiei bermatzea, baldintza berberetan, hizkuntza ofizial bien ezagutza praktikoa derrigorrezko irakaskuntza-aldia amaitzean, euskerearen erabileraa sustatuz eta euskerearen normali-



ADELA PEREZ PEREZ

Jubiladua

zazinoan lagunduz.

-Euskal Herriko herritar lez ikasleek euren kultura-nortasuna ezetutea erraztea, euren historia eta kultura erakutsiz, eta ikasleek euren ingurune geografikoan, sozioekonomikoan eta kulturean errotzea sustatutea.

Bitxia bada be, Lege proiektu barrian, desagertu egin da publiko berbea, apropos, horren justifikazioa titulartasun desbaidineko ikastetxeak, hau da, ikastetxe publikoak eta itunpekoak, parekatzea dalako. Esan barik doa, publikoak ez dan ikastetxea bere kudeaketan pribadua dala; hau da, irakasleak eta "ikasleak", gura dauan moduan kontratau eta deskontratau leikezala, hainbat kontzepturengaitik kuantak kobretan segidu leikela... nahiz eta finantzaketa publikoak jaso. Eta Lege barriari esker, finantzaketa hau handiagoa izango da.

PP eta VOXena izan ezik, Eusko Jaurlaritza osotuten daben partidu gehienen babesa, ezkerreko partiduena barne, izan dauan Lege proiektu barria oindino indarrean ez dagoan arren, aldaketak izan ditu. Horren artean, 2023-2024 ikasturtean ikasleak onartzeko prozesua arautzen dauan azken araudia dago. Bertan ikusten danez, matrikulazio akordioak irakaskuntza pribadu itunpekoaren aldeko planifikazioan oinarrituko da aurrerantzean be; izan be, aldaketa horren bidez, zenbait urtetarako hezkuntza itunak blindatzen dira; eta, jaitza-tasea jaitsi arren, bermatuko jakie eskaintzea, -hobeto esanda, gaireskaintzea- itunpekoei, eta desabantaila egoeran egongo dira publikoak, plaza eta/edo lerroak galdu diralako.

Itunpekoen gainfinantzaketa justifiketako, -eta eskola-ixtea eta bereizketea salatzen eta egoera horri aurre egiteko neurri arra-

zionalak, pedagogikoak eta justiziakoak eta gizarte-kohehinokoak eskatuten urteak daroazen ahotsak isiltzeko- Hezkuntza Departamentuaren arabera, barritasuna da zaugarritasun egoeran dagozan ikasle batzuk desbaideratuko dirala, eta euren ebaziko dabela nortzuk bai eta nortzuk ez, 2023-2024 ikasturtean umeak matrikuletan dituen familiek erantzun beharreko galdera ez-objektiboen moltso baten arabera. Oin arte ikastetxe publikoetan matrikulautu egozanak, ikastetxe itunpekoetara eroango dira, eta itunpekoei diru eta baliabide gehiago emongo jakie, eskola publikoaren kalterako. Daborduko ikusi doguz ikastetxe pribadu itunpeko gurasoen manifestazio batzuk banaketa honen kontra, euren seme-alabak ez daitezkan nahastu baliabide sozio-ekonomiko gitxiago daukiezan beste batzukaz, batzuetan, gainera, euskera daukienak ama-hizkuntzea.

Beste alde batetik badirudi, Hezkuntzan kosta egiten jakula publiko eta pribadua desbaidinatzea. Hori ez da beste zerbitzu batzukaz gertatzen; osasun sistema publiko eta pribaduagaz, esate baterako. Izan be, inor ez da harritzen klinika edo konsulta pribadu batera joandakoan, kobrau egiten gaituenean; edo taxi bat hartzean dogunean, hori be zerbitzu publikoak izanda, pagau behar izateagaitik. Baina ez da bardin gertatzen Hezkuntza pribadu itunpekoagaz, pribadua izan arren, diru publikoagaz finantzietan da eta.

Arratian, hezkuntza gehiena publiko da, nahiz eta EAEn egon titulartasun pribaduko eta itunpeko Estaduko zentro proporzino handiena, eta, seguruenik, Europakoa.

Hezkuntza Lege barriak eutsi egingo deutso dualtasun publiko-pribadu eta itunpeko egoera horri, eta sare publikoak subsidiario geratuko da. Euskal eskola publikoak defendiduten dogunok ezin dogu hori ulertu eta defendidu, eskola publikoak dalako ikasle ez-euskaldunak euskalduntzen dituan eta aukera bardintasuna bermatzen dauana.

Euskal Eskola Publikoak danona eta danontzat!



LUMATUTEN



URTZI BARRENETXEA

Materialista bat naz

Materialista esaten jako, besteak beste, diruaren ardurea baino ez daukanari. Horren aurrean, idealistak dagozala esaten da, baldintza fisiko zein politikoetatik haragoko esparru baten moidutuen diran horreek.

Berben kaiolan bizi garalata, kontzeptuak sarriago argitu beharko litzatekeez, ze uste dot materialismoa sano erraz lotuten dala konsumismoagaz. Horren aurrean, materialista izateak badauka beste zentzu bat; bezekoagoa, esango neuke.

Labur eta arin esanda, materialistek uste dau errealidadearen oinarria materia dala, gizakiok etenbarik interpretetan gabilzan zera. Ideak, ostera, burmuin material bateko prozesuak diran neurrian, ez dira nahikoa errealidadea ezetuteko.

Halan ba, materialista bat izanda, argi ikusten dot idealismo hutsean oinarrituten diranak gaur egun teoria ekonomiko na-

gusiak dirala. Horreek bai daukiela lotura gitxi errealidadeagaz.

Esaterako, teoriok ez dabe kontuan hartuten hondakinaren kontzeptua jarduera-zikloak definidutean (ez da agertzen saldo ekonomikoetan). Gainera, irabazien inguruko idea berezia eukiten dabe; izan be, ikuspegi horreentzat, petroliontzi bat, adibidez, diru-iturri askoz handiagoa da istripu bat badauka, eta ez berezko daukan funtzinoagaitik; bestela esanda, petrolio-isuri baten ostean aseguru-etxeen negozioa ipinten da martxan, garbitzaileen enpresak kontratatetan dira, hedabideak eta publizitatea be badatoz... Bardin baso batek su hartzean badau. Nik argi daukat: sute baten irabaziak ikusten hasten dana ez da mundu errealean bizi.

Holangoak ezeze, nagusituten dabilen ikuspegi ekonomiko gorputz fisikoak ahaztuten dabil. Dinoenez, mundu birtualetan biziko ei gara laster eguneko hainbat orduz, gure gorputz idealakaz, eta horrek, zelan ez, makina bat irabazi sortuko ei dauz.

Sistema ekonomiko idealista hau ez da bizi itargian, baina gure satelitera begira be hasi da meatzaritza intergalaktikorako proiektuakaz, eta, antza, bateria elektrikodun koheteakaz ailegaurko gara bertora. Beste barik.

ZERTZEAN



IRANTZU LEKUE



BEGI TXINDORRA

Apirilak hogeita bi, Barazargo maldan kabi,
lanean da Aranzadi, atzo laino gaur oskarbi,
gorpu batek bertan dagi, oihuka iraganari,
isiltasunean argi entzun da "Gora Euskadi!"

Bizitza hain dugu bihur, krudela leikela bihur,
trokan elkarturik bi ur eta heriotza hain hur...
gaur soilik zarena hezur, entzuna hamaika gezur,
goxokiro eta samur, lasai hartu ezazu lur!

Barazarren eroria, bertan da zure hobia.
Irabazleen gloria: idaztea historia,
eguneroko ogia gorpuen kategoria.
Galtzailearen zoria, ahazten ez den memoria!

Arkaitz Estiballes Ormaetxea



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48/142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Goider 666 58 20 06
Pozueta poligonoa, 10 IEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika Inplanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentzuak 101
R.P.S. 31/06

LEMOA

Arte Ederretako Memoria proiektua aurkeztuko dabe Lemoako Kultura eta Memoria Astean

Umorezko bakarrizketa batek zabalduko dau maiatzaren 8an Lemoako Kultura eta Memoria Astea eta Lemoakustik Fest jaialdiak zarratuko dau domekan, hilak 13. Memoriaren inguruko jarduera bik eta bost kultur ekintzak osotuten dabe programazioa.

Erredakzioa

Memoriari jagokonean, martitzenean, maiatzak 9, 19:00etan, Sabin Egiliorren *La memoria traumática* liburuaren aurkezpena egingo da Kotxepin Kultur Etxeko liburutegian. Liburu honetan egileak, iragan hurbileko hiru gatazka tragikoenetan (Shoah, latinoamerikako diktaduratan eta frankismoaren desagerpenetan) zelan egin jakon aurre eta zelan emon dan kalte ordaina aztertzen dau. Sabin Egiliorren doktorego tesia *El relato de una tragedia ausente. Testimonio audiovisual como método para la representación de la memoria traumática en las investigaciones de los desaparecidos bajo la represión de la guerra civil española* landa lanean emondako hamahiru urte eta egin dituan bederatzi dokumentaletan oinarritzen da.

Memoria historikoari lotutako beste ekintza, barikuan, hilak 12, 19:00etan izango da ikastetxeko sarreran. Memoriaren oihartzunak titulupean, Arte Ederrak eta Memoria Historikoa proiektuaren aurkezpena egingo dabe. Lemoako Udalak eta Arte Ederren Fakultadeak lehiaketa bat antolatu eben Lemoako Memoria Historikoa oinarritutako proiektu artistiko bat garatuteko. Proiektu irabazlea aurkeztuko jakie herritarrei.

Kultura jarduerak

Antzerki eta umore absurdoagaz zabalduko dau Jon Esnaola "Txiki" umoregileak astea, Kotxepin Kul-

tur Etxeko plaza espazioan egingo dauan bakarrizketeagaz. Maiatzaren 8an izango da 19:00etan.

Hurrengo egunean, familian antzerkiak gozatzeko Antzerki tailerra antolatu dabe 17:30ean, Berbalagunek, Kotxepin Kultur Etxeko plaza espazioan. Helburua, gurasoek eta seme-alabek, alkarregaz, antzerkiak euskeraz gozatueta da.

Hilaren 10ean, eguaztenean, 19:00etan, Joseba Sarrionandia eta Ines Osinagak *Katuen kontuak* ikuskizun poetiko-musikala eskainiko dabe plaza espazioan. Dozena bat kantuk osotuten dabe saioa, eta abesti bakotzak bere sarrera literarioa dauka. "Oin dala ia hamar urte Joseba Sarrionandiak Habanan sortu ebazan dozena bat testu, Atlantikoa zeharkatu eta Euskal Herrira heldu ziranak eskuz esku, konplizez konplize, sekretu bat konpartiduten dabenen artean sortzean dan zirrara hori lagun". Osinagak musikatu ebazan testuok eta holan sortu zan arrakasta handia izaten dabilan kontzertu-errezitaldi hau.

Hurrengo egunean, egunean, Arratiako Musika Eskolako ikasleek kontzertu emonaldia egingo dabe plaza espazioan 19:00etan. Beste emonaldi bat egingo dabe, domekan, hilak 13, 12:00etan, Kotxepin Kultur Etxeko atzeko landan, Memoria eta Kultura Astea zarratuko dauan Lemoakustik Fest jaialdiari hasikerea emoteko. Olaia Inziarte, Audience, Ghau, Mugan eta Maria Vaquerizo dira jaialdiko kartela osotuten dabene beste musikariak.



AREATZA/IGORRE

Areatzako Bandak eta Arantzartek alkarregaz, emonaldi bi egingo dabez

Emonaldi berezi bi, bandearen musika kontzertua eta jantzea batzean dabezanak emongo ditue Areatzako Bandak eta Arantzarte jantza taldeak, maiatzaren 7an, 11:45ean, Areatzako eskolako aterpean, Karpoko jaien egitarauan eta hilaren 14an, 12:00etan, Igorreko Goiko Plazako frontoian, eguraldi txarra bada kiroldegan. Errepertorio bardina egongo da kontzertu bietan.

Erredakzioa

Aritz Labrador, Areatzako Bandako zuzendari artistikoak, 2022-2023 denporaldirako "Herriarengandik herriarentzat" lempean, sortutako hirugarren ikuskizuna da. Bakotxean, herriaren adierazpen bat, bandearen musikeagaz buztartu dau. "Lehenengoa izan zan ahotsa, kantua herri baten adierazpen moduan; bigarrena izan zan literatura, ipuinak, eta hirugarrena, jantzea da, herri baten beste adierazpen modu bat. Hirurakaz ososuten dogu kontzertu moltso hau" adierazo deutso Labradorrek BEGITURI.

Errepertorioa

Jantzea zanez landu gura eban adierazpen modua, Arantzartegaz ipini zan kontaktuan, alkarlanean, proiektua gauzatzeko. Holan,

ikusizun honetan, pieza batzuetan, Arantzartekoek jantzan egingo dabe, Bandako musikeagaz. "Horreen artean, neuk idatzitako *Jantzan* izeneko obrea izango dogu. Bilboko Bandak jo eban Bilboko txistulariakaz batera eta oin-



goan Areatzako Bandak joko dau Areatzako txistulariakaz batera".

Albokea be eukiko dabe lagun Bandako musikariek eta Leon eta Mauriziaren *Arratiako jotea* eta *Porrue* be joko dabez. Arantzartekoek pieza bi honeetan jantzan egingo dabe. Banda eta albokarako moldaketa honeek Aritz Labradorrek berak egin dauz eta estreinaldia izango da Arratian.

Jesus Guridiren *Amaia* operako *Ezpatadantza* be entzun eta ikusteko aukerea egongo da Areatzan eta Igorren. Jose Francoren *Aires vascos n°2* Bandaren errepertorio klasikoan, hain ezaguna dana be ez da faltauko. Iñaki Urkizuk egindako beste obra bat jantza soinuakaz eta Euskal Herriko jantza desbardinak batzean dauzan nahaste bat be egongo dira Arantzarte eta Areatzako Bandaren emonaldi honeetan.

ARRATIA

Lidergo publikoak garatutako 5.0 industria aldarrikatu dau EH Bilduk Igorren

Erredakzioa

Apirilaren 25ean Iker Casanova Bizkaiko Ahalduen Nagusia izateko EH Bilduren hautagaiak eta Arratiako EH Bilduko kideek, Illart Gumuzio Igorreko alkate eta Arratiako alkategaiak tartean, agerraldia egin eben Igorreko Goiko Plazan. Bertan, Bizkaiko "bokazio industrial" azpimarratu eta etorkizunean be Euskal Herriaren motor ekonomikoa izaten jarraitzeko, 5.0 industriaren beharrezana aldarrikatu eben.

Izan be, Iker Casanovak adierazo eban "Bizkaia euskal ekonomia motorra" izan dala industriari esker baina atzen hamarkadan, bai langile kopurua bai BPGean eragina gixitu dala. Arratia bereziki, "industriaren gainbeherearen lekukoetako bat" dala azaldu eban. Hau, politika industrial eraginkorrik garatu ez dalako pasau dala azaldu eban eta aurrera egiteko, etorkizunean "industria 5.0 kontzeptuaren inguruan" eta

"lidergo publiko aktiboko" industria garatu behar dala proposatu eban: "teknologikoa, aurreratua baina baita be aintzat hartuta faktore sozialak eta ingurumenak". Industria bazarrik ez, Arratian lehen sektorearen garrantzia ez eban alde batera itxi: "Industriaren protagonismoa ukatu barik beste garapen mota integratu bat sustatu behar da, sektore guztiak aintzat hartzean dituan".

Ostean, berbea Illart Gumuziok hartu eban eta atzen urteetan eskualdean zarratu diran enpresetako batzuk zerrendatu ebazan, bai eta "langile burrukaz itxierea ekidin" dabene Kelvion eta Cementos Lemona gogoratu. Itxiera honeek, "Arratiara

ekarri dabene desindustrializazio prozesu baten parte" dirala esan eban Igorreko alkateak, Jaurilaritzearen eta Aldundiaren akzino ezari egotzi eutsan desindustrializazioa.

Horren aurrean, Errota Fundazioaren sorrerearen garrantzia gorapatu eban Gumuziok, "enpresen errotzea eta inbersinoak" beragaz etorri diralakoan. "Arratiarrok Arratian lan eta bizi gura dogu eta errota hauspotuten jarraituko dogu. EH Bildun urun horrentzako badaukagu ura, gatza, orioa eta legamia, eta Iker izeneko okina. Iker dalako Arratiaren garapen sozioekonomikoak behar dauan bidelaguna", amaitu eban.



ZEBERIO

Santa Kurtze, elorri zuriaren jaiak, hilaren 3tik 7ra ospatuko ditue Zeberion

Maiatzaren 3an elorri zuria bedeinkatzeko tradizioari eutsiko deusie Zeberio Santa Kurtze ermitan. Sasoi baten, elorri zuriagaz kurutzeak egin, bedeinkatu eta solan ipinten ziran uzta ona izateko. Mezea eta erramu bedeinkapenagaz emongo deutsee hasikerea Santa Kurtzen auzoko jaiak.

Erredakzioa

Santa Kurtze eguneko mezea eta barauskarriaz aparte, jaietako egitaraua bariku arrastitik domekara luzatuko da. Zapatu gauean, Atxurkada, Lokers eta Acido Folklorico taldeek ipiniko dabe musikea eta ostean dj Matxinada. Lehiaketa gastronomikoak eta auzokoen bazkaria be ez dira faltauko.

Maiatzak 3, eguaztena

12:00etan, mezea eta erramu bedeinkapena; ostean barauskarria.

Maiatzak 5, barikua

18:30ean, jaien hasikerako txupina.
18:30ean, Tortilla Txapelketan izen-emotea.
20:00etan, tortillen aurkezpena.
20:15ean, jantza plazan.
21:00etan, sari banaketea eta ostean parrilladea eta trikitaliak.

Maiatzak 6, zapatua

10:30ean, mendi ibilbidea Santa Kurtzetik hasita.
13:00etan, herri kirolak.
15:00etan, bazkaria norberak etetik eroandakoagaz. Edaria, ogia eta kafea batzordearen esku.
18:00etan, jolasak eta txapelketak.

20:00etan, txokolatea.

21:00etan, kontzertuak: Atxurkada, Lokers eta Acido Folklorico. Ostean dj Matxinada.

Maiatzak 7, domekea

12:00etan, desmontajea. Ostean konbidaduen bazkaria egongo da.



DIMA

Kalejireia eta jantza erakustaldia egingo dabe inguruko jantzari gazteek



Erredakzioa

Maiatzaren 6an izango da Gazte Barri jantza taldeak antolatutako aurtengo Dantzari Eguna. Zeanuriko Arrikibar, Otxandiko Urduri, Igorreko Arantzarte, Lemoako Durundi Barri eta Dimako Gazte Barri jantza taldeetako 180 ume eta gazte inguruk hartuko dabe parte kalejiran eta jantza erakustaldian.

Jaiak, 11:30ean hasiko da jantzariak eta Zornotzako Bizkargi 1937 Zarpantzar taldeko kideek egingo

daben kalejireagaz. Kalejiran bertan eta plazan egingo dabe jantzan Arratia eta Otxandiko jantzariak. Kalejiran zehar, bost geldiuene egingo ditue: Piedadeko egoitzan, anbulategi aurreko plazan, errotondan, Ibarra auzoan eta Arratiako egoitzan. Ostean, 13:00etan, plazan egingo dabez jantza guztiak, 13 jantza inguru, hain zuzen be.

Bazkalostean, egur jolasak egongo dira umeentzako 15:30etik 17:30era eta 17:30etik 19:30era euskal disko festa DJ

Ismederregaz; hau da Oizeder Mayo Gaztea irriatiako esataria eta Isma Pereira aktore eta animatzaileagaz. Bitartean, 18:30ak aldera txokolatea egongo da Dimako Dantzari Egunean parte hartu daben guztiarentzat.

Dimako Gazte Barri

Dimako Gazte Barri jantza taldean, 26 ikasle dagoz. Txikien taldean, -hau da, HH5, LH1 eta LH2ko ikasleak- 15 ume dagoz eta 11 ikasle LH3tik DBHra bitartekoak.

ARRATIA

Lehen Enplegu Azoka maiatzaren 10ean egingo da Zulaibar Ikastegian

Erredakzioa

Lanpostuak eskaintzen dituen Arratiako hamabost enpresa inguruk parte hartuko dabe eta bertaratutakoek enpresak ezetu, curriculumak emon eta enplegu planen parte izateko aukerea izango dabe. Jardunaldia Zulaibarren areto nagusian egingo da, 09:00etatik 14:00etara. Errota Fundazioak antolatu dau Enplegu Azoka Arratiako Udalen Mankomunitateagaz batera.

Enplegu azoka honek, "enpresen enplegu eskari handiari erantzuna emon gura deutso eta, aldi berean, eskualdeko gazte talentua Arratiako enpresetan mantentzen" gura daua dino antolatzaileek. "Gero eta enpresa gehiago hurreratzen dira langile eske Zulaibar Lanbide Ikastegira edo Errota Fundaziora, lanpostuak bete barik dituelako, batez be udara begira", dino Iratxe Gokoetxeak, Arratiaren dinamizazio sozioekonomikorako fundazioaren koordinatzaileak.

Azokak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza dauka. Enpresa bakoak gune bat izango dau erakudearen katalogoak eta informazioa heldu arazoteko eta,

aldi berean, gura dabenen curriculumak jasoteko. Parte hartzean daben enpresen artean hainbat industria gune dagoz, industriako zerbitzuei lotutakoak, eta baita zerbitzuenak be, eskualdeko enpresa bultzatzaileetako batzuk diranak.

Enpresa sarea

Arratiako bailarak %10 inguruko langabezia tasa dauka, Bizkaiko txikienetakoa, Lanbidek emondako datuen arabera. Neurri baten, eskualdeko industria sare handiari esker da hau, sektoreko 300 bat enpresak osotuten dabelako. Izan be, Arratiako industria sektoreko enpresetako enplegua totalaren %30 da, eta zerbitzu sektoreko enpresek enpleguaren %13 eta %19 artean biltzean dabe. Arratiako enpresek, batzuek beste, hogeit bat langile ditue.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

EH Bilduk Bizkaiko bost deiadar mendietara igoteko deialdia egin dau

Erredakzioa

Euskal Herria Bilduk Bizkaiko bost deiadar mendiak (Kolitza, Ganekogorta, Sollube, Oiz eta Gorbeia) igoteko ekitaldia antolatu dau datorren maiatzaren 7rako, Foru eta udal hauteskunde kanpaina hasi aurreko astegoienean, komunitadea aktibetako helburuagaz.

Ekimen honen bidez auzolanerako deia egingo dabe, "baita EH Bilduren komunitade eta gizarte osoa mobilizetako eta aktibetako be" adierazoz dau koalizioak prentsa-ohar batez.

Hauteskondeei begira

Kondairaren arabera, Kolutza, Ganekogorta, Gorbeia, Oiz eta Sollube mendietako tontorretan sua biztu edo adar soinuagaz deitzean zan jentea Bizkaiko



UBIDE

Ubier, garagardao azokea eta musika jaialdia egongo dira Ubiden



Maiatzaren 13an, Ubiden, Ubier garagardao azokea, 17:00etatik aurrera, eta kontzertuak 18:00etatik aurrera egongo dira, Udalak antolatuta Gorbeialderen laguntzeagaz.

Erredakzioa

Araban eta Gipuzkoan egindako garagardao artisauak dastatu ahal izango dira bertan. Kontzertuei jagokienean, Eskupitajo, Negra Cucaracha Terrorfolk, Penny Fleck eta Dube taldeek joko dabe. Hamabi eta erdietatik aurrera AK pintxa diskos dj-a egongo da. Jatekoa, Zornotzako Kemekomo? food truck-ak eskainiko dau eta zezen mekanikoa be egongo da iluntzean, jaia girotzeko.

Hiru etxetako garagardao artisauak, Elgetako Baobeer, Gasteizko Garagart eta Arabako Lautadako Býra, hain zuzen be, dira dastatu ahal izango diranak azokan. 17:30ean, garagardao pinta bat nok edan lehenago lehiaketea egongo da. Lehiaketan, gehienez, hamar lagunek hartu lekie parte.

Kontzertuak

1980ko hamarkadako Laudioko punk talde bat izan zan Eskupitajo, Euskal Rock Erradikalaren testuinguruan. Maketa bi grabau ebazan eta 1987an desegin zan taldea. 30 urte beranduago agertokietara bueltau zan eta Ubiden, 18:00etan, punk gordinena eskainiko dau.

Hurrengo taldea, Negra Cucaracha Terrorfolk da, 19:30ean hasiko dana jotzen. Gasteizko

talde hau, pandemiaren ostean sortu zan bikote moduan, baina gero beste kide bi gehitu jakien eta *Disaster songs* EP-a argitaratu eben. Diskoan, Eskorbutoren *Más allá del cementerio* kantuarren bersino bat egiten dabe *Tú a Chernobyl y yo a California* titulupean. Gas maskarakaz urtetzen dira agertokira.

21:30ean, Penny Fleck Durangaldeko rock taldearen txandea izango da. Joanna Keenek (ahotsa), Iñigo Larrigan Moin-ek (gitarrea), Jokin Larreak (bateria), Jon Revilla Yuki-k (gitarrea) eta Koldo Zubiak (bajua) osotuten dabe taldea. Aurretik hainbat proiektu diferentetan ibilitakoak dira musikariak: Storm, Arto Bixarra, Dirties, Sermonds, Xaiko edota Kilauea taldeetan, eta sarri euren ibilbideak kurutzatu dabez. Oin urte bi batu ziran Penny Fleck formazioa sortuteko. 2022ko urri bigarrean, *Secret Keeper* lehenengo diskoa kaleratu eben.

Atzenik, 23:15ean, Dube Durango eta Berrizko hirukoteak joko dau Ubieren. Iker Hernandezek (bateria), Imanol Jareñok (bajua) eta Aiert Agirrek (gitarrea eta ahotsa) osotuten dabe taldea eta *Ezer ez da* diskoa aurkeztuko dabe Ubiden. 1990eko rock musikearen eragina daukan musika gordina goa eta modernoa egiten dabe.

AREATZA

Egitarau potoloa antolatu dabe Karpoko jaietarako

Maiatzak 6-7ko astegoinean ospatuko ditue Karpoko jaiak eta egitarau potoloa prestatu dabe, kaleak musika bandez betez edota Areatzako I. Upo Galapan mendi lasterketea abiatuz, beste ekintza askoren artean.

Erredakzioa

Aurreko egunean, hilak 4, *Kilimateria*, Kaitin Allenderen bakarrizketak eta Oihane Perea, Irati Anda eta Iratxe Ibarren bertsoak batzean dituan ikuskizuna egongo da Laminetxe Gaztetxean.

Musikeari jagokonean, Cotton Blues eta Broken Brothers Brass Bandek joko dabe zapatuan Areatzako kaleetan; eta domekan, Areatzako txistulariek eta Dirty Durum Brass Band taldeek animauko dabez kaleak. Bandak eta Arantzarte jantza taldeak saioa egingo dabe eskoletako aterpean be. Gastronomiak be izango dau bere lekua Karpoko jaietan, Paella eta Gisadu Lehiaketakaz; baita kirolak be, mendi lasterketa barriagaz edo Harriti andrazkoen giza proba taldearen eta herritarren arteko norgehiagokan. Ume eta gazteek be aspaldi lez aukerea eukiko dabe goitibeheretan Atzekoko bidetik bajatuteko. Umorea presente egongo da hainbat lehiaketatan, plastikozko ahateen lasterketan, barbarako eta bere alderik baserritarrena adierazoko dau Areatzak domekan, ganadu, ekoizle eta artisautza azokan.

Kaleko bandak

2006an Iruñeako kaleetan jaiotako bandea da Broken Brothers Brass Band eta kale-taldean egungo soinu tradizionala dakar. Bost disko ditu kalean, *The Live We Deserve* (Errabal-Jazz, 2012), *The Mud* (Errabal-Jazz, 2014), *Il-doa landuz* (Errabal-Jazz, 2016), *Txertaketa* (Errabal-Jazz, 2018) eta *Katebegia* (2022). Alkarlanean be ibili dira, bai zuzenean, bai estudioan, Berri Txarrak, Fermin Muguruza, Ibil Bedi, Arima Soul, Moises No Duerme, Cabazafuego eta Ampanoiaz, besteak beste.

17 urte honeetan, Euskal Herriko, Espainiako eta Frantzia osoko hamaika kale, areto eta jaialditan jo dabe.

Euren estiloan hainbat eragin musikal topau daitezke; jazz garaikidea (Robert Glasper, Kamasi Washington...), grooves jantzagarriak, rapa, inprobisazio kolektiboa eta gopela, gure herrietako kaleetako bizitza islatzen daben taldeen kantuarak.

New Orleaneko kaleetako

erritmoak jazzagaz eta estilo urbanoakaz buztartzen ditu Dirty Durum Brass Bandek ostera. New Orleaneko brass banden estiloan oinarrituta, errepertorio barria eta propioa garatzea izan dabe helburu bederatzi musikari honeek. Urte luzez alkarregaz zein norbere aldetik beste proiektu batzuetan eta kaleko musikan ibili ondoren, 2021ean sortu eben Dirty Durum Brass Band. Euren emonaldietan publikoaren eta bandearen arteko loturea poztasun iturri bihurtzea gustuko dabe.

Kilimateria

Kaitin Allendek sortutako *Klimaxetik klimateria eta buelta* bakarrizketatik sortu da *Kilimateria* eta hilaren 4an Areatzako Gaztetxean ikusteko aukerea egongo da, 19:30ean, Areatzako Udaleko Bardintasun arloak eta Frakazuri Gazte Asanbladeak alkarlanean antolatuta. "Zer gertatzen da andrazkoen bizitzan klimaterioan sartu eta menopausia ate joka dagoanean? Zelan sentitzen gara? Alboan doguna akabatzeko moduan gagoz. Suminkortasunez beteta abanikoen erreginak bilakatzen gara. Eraldaketa prozesu honek bestelakoak be emoten deuskuz. *Kilimaterioak* klimaxera heltzeako autopista bilatzen dabilanean klimaterioagaz topo egiten dauan andrearen ibilerak kontauko ditu, bakarrizketa eta bertsoak uztartuz alkarizketara bidea egiteko.

Andra helduak oholta ganean, sortzaileak, sorginak, baktza egoera eta ziklo desbardin batean murgilduta gaiari umorez eta konpleju barik heltzeko go-

zoz" dinoe sinopsian.

Egitaraua Maiatzak 4, eguena

19:30ean, *Kilimateria* ikuskizuna. Bakarrizketak: Kaitin Allende; bertsolariak: Oihane Perea, Irati Anda eta Iratxe Ibarra. Laminetxe Gaztetxean.

Maiatzak 6, zapatua

Paella eta Gisadu Lehiaketak erreko pasean.

09:30ean, Upo Galapan, Areatzako Mendi Lasterketea (14 km) Karpoko landa gunetik urtenda.

13:00etan, Cotton Blues, *Vermouth Session* erreko pasean.

14:00etan, Paella eta Gisadu Lehiaketen aurkezpena udaletxeko arkupean.

15:00etan, bazkari herrikoa.

16:00etan, plastikozko ahate lasterketea errekan.

17:00etan, umeentzat goitibeherak Atzekoko bidean.

18:30ean, Harriti taldearen erakustaldia Goikokalen. Harriti vs herriko gizonezkoak. 20:00etan, Broken Brothers Brass Band taldeagaz kalejireta herritik zehar.

Maiatzak 7, domekea

10:00etatik 13:30era, Ganadu, Ekoizle eta Artisautza Azokea plazan.

11:45ean, Areatzako Banda, Arantzarte jantza taldea eta Areatzako txistularien emonaldia eskolako aterpean.

13:00etan, Dirty Durum Brass Band taldea herriko kaleetan.

13:30ean, azokearen amaiera eta zozketea.

Guraso alkarreak taloak egingo ditu.



Areatzako plazea igazko Karpoko jaietan.

ERROTARIK ERROTA

Zeanurin errotarik errota, Fermin Pujana gogoratuz

Maiatzaren 7an izango da Zeanuriko Erroten XVI. Ibilaldia.



Argazkia: Jon Urutxurtu.

Jon Urutxurtu

2023ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia maiatzaren 7rako prestatu dau Joko Alai alkarteak. Aurten oinezko

ibilaldi honek hamaseigarren edizioa beteko dau, eta urtero Olabarriko errotea erakusten egoten izan dan Fermin Pujana gogoan izango dau, 2022ko abuztuan

hil zan eta. Antolatzaileek urtekeran oroitzen ekitaldia egingo dabe Fermin Olabarrikoak edizino guztietan emondako laguntzea eta parte-hartzea eskertzeko.

Fermin Pujana eta Olabarriko errotea

Olabarriko errotea Iburguen kofradian dago kokatuta, Arratia errekearen ertzean. Jatorriz burdinolea izan zan eta Zeanuriko patronoa zan Arriola familiaren jaubetza; holan azaltzen da aitatur XVI. gizaldiko dokumentazioan. XIX. gizaldiaren bigarren zatian burdinola errota eraldatu eben.

Pujanatarren aurretik Manterola familiak ustiatu eban, 1898ko zemendiaren 30ean, San Andres egunean, Isidro Pujana, Ferminen aitita, errentari moduan, errotearen kargu egin zan arte.

XX. gizaldiaren erdirantza Benigno Pujanak, Ferminen aitak, errotea erosi egin eutsen Arriolarrei. Benignok errotari lanetan jardun eban 1995eko urri bigarrenaren 11n hil zan arte. Bera izan zan Zeanuriko atzen errotari profesionala.

Aitaren heriotzearen ostean, Fermin semeak errotearen konponketa lanei heldu eutsen: piezaz pieza desmontauz eta barriro montauz, goitik behera zaharbarritu itxi arte.

Guztiz zaharbarrituta egon arren,

errotan hobekuntzak egin ebazan eta lanari ekin eutsan Fermin Olabarrikoak, 2022ko abuztuan bere heriotzea gertatu zan arte.

2006an Joko Alai eta Ipizki taldea Zeanuriko Erroten Ibilaldia antolatzen hasi ziranetik, Fermin beti prest azaldu zan antolatzailei laguntzeko eta egun horretan erro-

tea erakutsi eta martxan ipinteko.

Maiatzaren 7an, Zeanuriko Erroten XVI. Ibilaldia antolatzen dan egunean, antolatzaileek Fermin oroituko eta eskertuko dabe urte honeetan guztietan emondako laguntzeagaitik eta erroten ondarea berreskuratzen eta ezetutera emoten egin dauan lanagaitik.



Argazkia: Jon Urutxurtu.

Antolatzaileen arabera, ibilaldiaren helburuak ez dira aldatu hasi zaretik: "alde batetik, herritarrei zein kanpotik hurreratzen diran bisitariei Zeanuri eta bere auzoak ezetutera emotea; bestetik, Zeanuriren historian errotek izan daben garrantzia ezetutarazotea eta atzenik, domeka goiza natureagaz hartu-emonetan eta kirola eginaz pasatzeko aukerea eskaintzea". Hamazortzi dira Zeanurin agertzen diran errota edo erroten arrastoak, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar bederatziren ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan, Errotabarrin, Iburgutxin eta Olabarri, sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe.

Ibilbide bi prestatu dabez antolatzaileek, bata luzea, 18 kilometrokoa, eta bestea, laburragoa 12 kilometrokoa. Hau, jan-edana bananduko dan lekutik helmugara doa.

Urtekeria herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan; plazatik, udaletxearen aurretik abiatuz, eta Alziber eta Errotabarrin erroten ondotik —azken hau 2015ean zaharbarritu eben Manterolarrek eta sartu-urtena egin ahal izango da— pasau ostean, Undurragako urtegiaren ertzetik egingo dabe aurrera, eta horretarako, 2019an zabaldu zan bidea, 200 metroko egurrezko pasarelea, jarraituko dabe.

Urtegia atzean itxi bezain laster Barrengoerrota aurkituko dabe, Beretxikorta errekatxoaren ertzean. Agarre izeneko baserriaren ingurutik aurrera eginaz, Undurraga auzunera jaitsiko dira Iburgu-

txiko errotarako bidea hartzeako; hemen, ateak zabalik izango dira, eta gura dabenek kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe. Iburgutxitik Lanbreabeko errotera, eta hemendik barriro Undurragako urtegiaren ertzetik ekingo deusie bideari, oingoan beste aldetik. Presatik 100 metro atxina, Alkiberren, indarrak barrizeko jan-edana banatuko da. Aurrerantzean, lehenengo Otzerinmendi auzunean eta gero Uriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ingurutik igaro ostean, azken kilometroa beteten hasiko dira. Helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko azken errotea azalduko da, Olabarriko, Pujana familiak guztiz zaharbarritu, eta sartu-urtena egiteko aukerea izango da, Zeanuriko plazara heldu eta ibilaldiari amaierara emon aurretik.

Ibilaldiari buruzko informazioa

Eguna: maiatzaren 7a, domeka.
Izen-emotea: 08:30etik aurrera, herriko plazan: 6 euro Joko Alai baxkideek, gainontzekoek 4 euro eta 14 urtetik beherakoek debalde.
Urtekeria: 09:00etan.
Ibilbideak: luzeak 18 kilometro inguru ditu; laburrak, 12.
Jan-edana: Alkiberren jan-edana bananduko da.

Errotetan sartu-urtena: ibilaldiaren hasieran Errotabarrin erroten sartu-urtena egiteko aukerea izango da, zazpigarren kilometroan Iburgutxikoan eta atzen kilometroan Olabarriko erroten.

Olabarri gainera, bisitetan diran beste errota biak: Errotabarrin eta Iburgutxi

Errotabarrin errotea: Otzerinmendiko kofradian dago. 1785ean eregi eben. Zeanuriko errotarik barriena da. Hiru hari ditu. Errota honetan, preseaa eta anteparea lotuta dagoz konporta baten bidez. Zeanuriko gainontzeko errotetatik bereizituz, Errotabarrin errotapetik kaltze bat ateraten da, urak errekarara bideratzeko. 1975eko apirlean itxi eutsan lan egiteari eta atzen erroteria Andres Aldekoa "Ane" izan zan. 2015ean guztiz zaharbarritu eban Errotabarrin Manterola familiak.

Iburgutxiko errotea: Ipiñaburuko kofradian dago. XIX. gizaldian burdinolea izan zan. Gaur egun hari bi badaukaz be, hiru harrigaz egin eban behar. Hirugarren harriak 1950erantza itxi eutsan lan egiteari. 1945ean errotearen azpiko aldean turbina bat eta generadore bat jarri argindarra ekoizten hasi ziran Iburgutxin, eta 1978ra arte gitxi gorabehera Alzua, Ipiñaburu eta Undurragako baserri batzuetara saltzean eben elektrizidadea. Iburgutxiko errotearen instalazioak guztiz zaharbarrituta dagoz. Atzen erroteria Gabriel Larrazabal izan zan, eta bere heriotzearen ostean, urte batzuetan, Satur semeak jarraitu eban ingurukoentzat ehoten. 2019an Pedro Elexpek erosi eban errotea eta bera da gaur egungo jaubea.

LEMOAKUSTIK FEST

Olaia Inziarte eta Audience izango dira Lemoakustik Fest jaialdiko kartelburu

Maiatzaren 13an izango da Lemoakustik Festen aurtengo edizioa. Olaia Inziarte, Audience, Ghau, Mugan eta Maria Vaquerizo izango dira bertan.

Erredakzioa

2017an sortu zan Lemoakustik Fest, jai eremutik kanpo Lemoan musika eskaintzea indartuteko helburuagaz eta pisua hartzean joan da euskal musikearen egutegian. Kotxepin Kultur Etxearen inguruan izaten dira kontzertuak, Kultur Etxea zabaldu zanetik. "Hasikera baten, formatoa zan akustikoa, errazagoa zalako ekipoa herritik eroatea. Kotxepinen inguruan egiten hasi ginanetik, ekipoa hobeak ekarri ahal doguz, eta taldeak ekarten hasi ginan. Formatoa elektrikoa da baina ez dago metala, eta ez dago talde zaratsurik, beti folk amerikarra, indie, pop, eta estilo lasaiak" azaldu deutso BEGITURI Izkander Fernandez antolakuntzakoak.

Besteak beste, Moby Dick, Margo Gilker, Ekiza, Maren, Dead Bronco, Birkit, James Room, Sara Zozaya, Eneritz Furiak, Habi eta Pasadena izan dira Lemoako ekitaldian. HighLights, Izaro, Nogen, Anari eta Ibil Bedi izan dira kartelburuak.

Esperientzia edo proiektino handiko talde eta musikariak

Esperientzia daukien taldeak, talde barriakaz tartekatzen saiatzen dira eta hori ikusi daiteke kartelburu biakaz. Izan be, Olaia Inziartek 2022ko amaieran egin eban debuta eta Euskal Herrian proiektino gehien daukan artistetako bat da. "Danerik egiten dau, badaukaz abesti batzuk pop estilokoak eta beste batzuk izan daitezkanak folk amerikar alternatiboa, jantzan egitekoak be bai... oso modernoa. Beti be neska gazte baten perspektibatik".

Kartelburu lez be, Audience,

gernikarrak egongo dira, "atzen hamarkada bietan Bizkaiko eszenan izan dan talderik jator eta baliotsuenetako bat". 2000 urtean sortutako talde mitikoa da Bizkaian eta Euskal Herrian. Disko asko argitaratu ditue eta folk amerikarra eta indie-aren artean, mobiduten dira. Lemoako Gazte-txean eta Lemoako jaietan be jo izan dabe.

Gartxot Unsain "Ghau" da eta oso proiektu berezia dauka. Talde askotan dago sartuta, oso aktiboa da. Pop eta jantzearen arteko espektakulu bat dauka eta jantzari batzukaz da Lemoara etortekoa. "Sano ikuskizun bisuala da: ez da bakarrik musikari bat musikea jotzen, beste gauza batzuk ikusiko doguz" dino Fernandezek.

Beste talde gazte bat dator gero, Mugan. Taldea 2017an hasi zan sortzean, Donostian, eta 2019ko urrietan egin eban jenteaurreko bere lehenengo emonaldia. Zazpi taldekide dira eta, pop-rock eta folk estiloko musikea egiten dabe, "melodikoa". Etorkezun handiko taldea da.

Maria Vaquerizo kantatutore lemoaztarra be egongo da Lemoakustik Festen eta igazko moduan, Arratiako Musika Eskolako musikari gazteek emongo deusie hasikerea jaialdiari.

Eguerditik gauerdira

Kontzertuak eguerdian hasi eta gauerdira arte luzatuko dira Kotxepin Kultur Etxeko leku bitan: lorategietako agertoki zirkularrean eta atzeko zelaian. Euria egin ezker, lorategietako kontzertuak Kultur Etxe barruko auditoriumera pasauko litzatekez. Aitzeko zelaian karpa bat egongo da.

Aiko hemen aurreikusitako ordutegi eta eszenalekuak:

12:00etan, Arratiako Musika Eskolea atzeko landako karpan.

13:00etan, Maria Vaquerizo aurreko lorategian.

14:00etan, Mugan, atzeko landako karpan.

18:30ean, Ghau, atzeko landako karpan.

20:00etan, Audience, aurreko lorategian.

21:30ean, Olaia Inziarte, atzeko landako karpan.

Hurreratzen diranak garagar-dao artisauroak eta eskaintza gastronomikoa topauko dabe bertan.

2017tik, seigarren edizioa

Lemoakustik Fest 2017an sortu zan, planteamentu akustiko eta formatu ibiltari batez. Aurtengo da seigarren edizioa, nahiz eta zazpigarren urtea izan, 2020an pandemia sasoiko dekretuak zirala-ta, ezin izan zan egin. 2021ean, urri lehenengoan egin zan, eta igaz, maiatzera bueltau zan. "Pandemiak ekitaldia birdefinitzea eragin eban, eta Lemoatxaren magalera eroan zan, Kotxepin Kultur Etxeko ingurune naturalera. Horreri esker familientzako soinu eskuragarrien ekitaldi elektriko bihurtu zan".

Urte honeetan Lemoakustik Fest jaialdia urtean-urtean pisua hartzean joan da. "Gero eta jente gehiago euki dogu. 2021ean, Anarik jo eban baina oindino mosukoagaz, oindino dana arraro egoan, jesarrita egon behar zan... Hor langa bat egon zan, baina gitxi gorabehera urtetik urtera gero eta jente gehiago ekarri dogu. Igaz jentea gogo handiagaz egoan, ulertzekoa da. Aurten ez

dakit zenbat jente egongo dan, baina guk betiko moduan antolatatu dogu, ahalik eta ondoen eta gero ikusiko da". Igaz 400-500 persona inguru egongo zirala uste dabe antolatzaileek.

Adin tarte guztientzako musika jaialdia

Izkander Fernandezek ustez, horixe litzateke jaialdiaren tamaina egokia, "holango zeozer izan behar da, ez da hazi behar" dino. "Gura genduan jai esparrutik ate-

ratea musikea, eukitea beste erferentzia bat herrian, eta badaukagu, landu egin dogu eta nik uste dot ondo egiten dogula, jenteak kontuan eukiten dauala, ezetuten dala Euskal Herrian eta batek etorri gura badau, etorriko dala".

Apustua, formatua bera da. Soinu ez izatea oso zaratsua eta eguerditik hasitako ordutegiagaz batera, jaialdi familiarra izatea gura dabe antolatzaileek: ez denez leku zarratu baten, umeak disfrutau ahal dala dinoe.



	JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea	
	Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre	
	Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza	
	Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre	

649 979 115



inigoirua@begitu.eus

IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN



SAN ISIDRO ZEANURIN

Barrero be ganadua protagonistea izango da Zeanuriko sanisidroetan

Maiatzaren 12tik 15era San Isidro jaiak ospatuko ditue Zeanurin. Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokaren 40. edizinoa izango da maiatzaren 13n, 10:00etatik 14:00etara. Bertan, inguruko ganadurik ederrenak egongo dira ikusgai, baserriko produktuen eskaintza handia eta baserri munduari lotutako lanbide batzuen erakusketea. Arrastia eta batez be gaua, gazteena izango da Lehian erromeria taldearen kontzertuagaz. San Isidro egunean, astelehenean, idi-probak egongo dira.

Erredakzioa

Jaiei hasikerea emongo deutse maiatzaren 12an, Udabarriko kontzertuen barruan, Zeanuriko Andra Mari parrokiaren inguruan emonaldiak. Iluntzeko 20:00etan izango da eta Zeanuriko Abesbatzaz batera, Olague Abesbatza eta Soinu Bidea Abesbatza egongo dira.

Hurrengo eguneko goizean, zapatuan, izango da zeanuriztarrek hain gustoko daben eta kanpoko jentea be erakarten dauan Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azoka. Oin dala 40 urte, besteak beste, Koldo Intxaurre zinegotzia eta Julian Ajuriagerra eta Agustín Lejarreta abeltzainen ekimenez hasi zanetik, beti izan da Udalaren eta abeltzainen ekimena. Gorbeari Zeanuriko Abeltzainen Elkartegaz batera antolatuten dau oin Udalak. 2020an ez zan egin, pandemia sasoiko dekretuek galarazo ebelako eta 2021ean, merkadu txiki bat egin zan ganadu barik. Igaz errekerperau zan ganadu azokea baina aurreko urteetan baino abere gitxiagogaz. Aurten barriz, pandemia aurreko zenbakietara helduko dirala uste dau Eider Ajuriagerra Zeanuriko alkateak. Maiatzaren 2an zarratuko da izen-emotea eta oindino zarratuta egon ez arren, "ikusitako dot zerrendea eta gitxi gorabehera errekerperau dogu pandemia aurretik etorten ziranen zenbakia" azaldu eutsan BEGITURI. Izan be, 80 behi inguru, 30 txahal, 62 behor eta hainbat ardi eta ahuntz talde egozan apurtauta ordurako. Behi pirenaiako, terreña, eta limusina errazakoak; ardi latxak, bertoko behorak... egongo dira ikusgai eta ederrenak sarituko ditue 13:00ak aldera.

Nekazal produktuei jagokienean, txakolina, sagardoa, ogia, pastelak, gaztaia, ezti, txorizoa, ortuariak, lorak... danerik egongo da. Talok be egongo dira. Baita, narruagaz lan egiten daben artisauak, telak lan-



Zeanuriko sanisidroak.

Argazkia: Jon Urutxurtu.

duten dabezanak eta zidarginak, beste batzuen artean.

Gainera, Enrike Etxebarriak gaztaia egiten erakutsiko dau, Mikel Etxebarriak ardiei ulea moztzen eta arto txuleta dastaketean egongo da Durangaldeko Acol artzain alkatearen eskutik. Goizean zehar, herriko txistulariek eta trikitilariek musikaz girotuko dabez plaza inguruak.

Lau jai egun

Ganaduak eta ganaduzaleak etxera bueltatu eta nekazariak eta artisauak salmahaiak jasotakoan, musikeak girotuko dau jaia zapatu arrastian. Arrastia eta gaua, "gazteenak" dirala dino alkateak. Holan, 18:30etik aurrera, Sakatu elektrotxarangeak animauko dau Zeanuriko kaleak eta 22:30ean, Lehian erromeria taldeak joko dau eta ostean dj Kanynek ipiniko ditu jantzan plazan geratzen diranak.

Domeka arrastian, umeek eta nagusiek magia ikuskizun batez gozatuteko aukerea izango dabe. 17:00etan, Tor eta Txoborro magoek *Aztikeriak* ikuskizuna, magia saio barrizalea, eskainiko dabe plazan. 18:30ean hasita, herri-kirolak egongo dira: Urrezko

Aizkolarien XXVI. Banakako Txapelketako kanporaketea, andra azkolarien txapelketea, Hiru Hamarreko Harrijasotze Txapelketea eta andra mailako harrijasotze erakusketea.

San Isidro eguna astelehena da aurten. "Herriko batzuk jai eukiko dabe, baina beste batzuek beharra, eta hori kontuan hartuta sortu doguz ekintzak" dino alkateak. Umeek bai, umeek jai eukiko dabenez, eurentzako, zirku tailerra egongo da 11:30ean plazan eta 13:00etan, Arrikibar jantza taldeak erakustaldia egingo dau. Tartean, 12:00etan, mezea egongo da San Isidron. Urteroko idi-probea 17:30ean izango da. Hiru idi-bikote neurtuko dira bertan: Berriatua, Zornotza eta Marurikoak, hain zuzen.

Behi pirenaiako, terreña, eta limusina errazakoak; ardi latxak, bertoko behorak... egongo dira ikusgai eta ederrenak sarituko ditue





Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA 4 URTEK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

*** INFORMAZIOA:**

- Web gunean
- Astelehenetik ostiralera
10:00etatik - 13:00 arte
- Telefonoa: 94 631 73 52

MATRIKULA
Epea: maiatzean



- Matrikulazioa ONLINE:
www.arratiakomusikaeskola.eu

begitu **20**
urte

**BAIETZ
30 LAGUN
BARRI EGIN!**

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuota: 35€ 55€ 75€




*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.



2023 Karpoko Jaiak

Maiatzak 4, eguena

19:30 **Kilimaterioa** ikuskizuna Laminetxe Gaztetxean. Bakarrizketak: Kaitin Allende; bertsolariak: Oihane Perea, Irati Anda eta Iratxe Ibarra.

Maiatzak 6, zapatua

Paella eta Gisadu Lehiaketak erreka pasean.

09:30 Upo Galapan mendi lasterketa.

13:00 **Cotton Blues**, Vermouth Session erreka pasean.

14:00 Paella eta Gisadu Lehiaketen aurkezpena udaletxeko arkupetan.

15:00 Bazkari herrikoa.

16:00 Plastikuzko ahate lasterketa errekan.

17:00 Umeentzat goitibeherak Atzekoko bidean.

18:30 Harriti taldearen erakustaldia Goikokalen. Harriti vs herriko gizonezkoak.

20:00 **Broken Brothers Brass Band** taldeagaz kalejirea herritik zehar.

Maiatzak 7, domekea

10:00-13:30 Ganadu, Ekoizle eta Artisautza Azokea plazan.

11:45 **Areatzako Banda**, **Arantzarte Dantza Taldea** eta **Areatzako txistularien** kontzertua eskolako aterpean.

13:00 **Dirty Durum Brass Band** taldea herriko kaleetan zehar.

13:30 Azokearen amaiera eta errifearen zozketa.

*Guraso alkarteak taloak egingo ditu.



CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
LANBIDE HEZKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

DATAK
Aurrematrikula
maiatzaren 8tik 26ra
Matrikula
uztailaren 14tik aurrera
Ate irekiak
maiatzaren 4an

ESKAINZA OSOA
.....
GOI-MAILAKO ZIKLOAK
• Metal-Eralkuntzak
• Web Aplikazioen Garapena
• Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena
• Mekatronika Industrialia
• Garraioa eta Logistika

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK
• Merkataritza Jarduerak
• Erizaintzako Zaintza Osagarriak
• Mantentze-lan Elektromekanikoa
• Soldadura eta Galdaragintza
• Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA
.....
• Erizaintzako Zaintza Osagarriak
• Soldadura eta Galdaragintza

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
.....
• Langile langabeel eta landunei zuzendutako ikastaroak

ER, AEB, FP, ELKAR, 946 730 251, info@fpzornotza.com, www.fpzornotza.com, Twitter, Facebook, Instagram



KRISTONAK
“AhOBETEhORTZ” biniloa!!!

KRISTONAK
AhOBETEhORTZ

elkar
www.elkarargitaletxea.eus
(+34) 618 94 79 54

TXIRRINDULARITZEA

Txirrindularitza Paralinpikoko Espainiako Kopan lider da Oskar Garro



Oskar Garro.

Erredakzioa

Espainiako Kopako lasterketa bi jokatu ziran apirilaren 15-16ko astegoinean Murtzian. Oskar Garro txirrindulari igorretarrak bigarren egin eban zapatuan Molina de Seguran jokaturako eta hurrengo egunean, Ceuti herrian egindako lasterketa irabazi egin eban. Holan, Kopako sailkapen orokorreko lider jarri da. Espainiako Kopako hurrengo lasterketa, maiatzaren 7an izango da Benbibren (Leon).

Espainiako Kopako lasterketan, helmugara bigarren eta lehenengo postuetan ailegau

zan arren, sensazio desbardinak izan eban igorretarrak. Izan be, Espainiako Kopako lehen proban, hau da, apirilaren 15ean Molina de Seguran izandakoan, bigarren egin arren, ez ebalu euki "egunik onena" azaldu eutsan BEGITURI Garrok. Hurrengo egunean bai, "sensazio oso onak" izan eban eta irabazi egin eban lasterketa eta sailkapen orokorreko lehenengo postua.

2018tik egoan Igorrekoa lehiaketetan parte hartu barik, baina ezin hobeto hasi da. Martiaren amaieran be, Europako Kopako lasterketa bat egin eban eta podiumera igon zan, hirugarren eginda.

ERRUGBIA

Ekaitz Duñabeitia: "Hurrengo urtean ligea irabazteko egingo dogu burrukan"

Arratiko Zekorrek Ekin Eraikuntzak taldeak Aste Santu aurretik amaitu eban Ohorezko B Mailako Euskal Ligea, laugarren postuan.

Erredakzioa

BEGITU San Txismeko entrenamendu batera hurbildu zan Ekaitz Duñabeitia entrenatzaileagaz Arratiko Zekorrek barriztuaren bigarren denporaldiaren balorazioa egiteko eta pozik topau eban taldea; giro ona eta hurrengo urtean, lehen postuagaitik burrukatuteko gogoak.

Izan be 2021-2022 denporaldian, talde barriaren lehen urtean, jokalar faltea egon zan baina oingoan, arazoa konponduta ikusi dau entrenatzaileak. Badagoz jokalaria eta badago motibazioa, taldearen aldetik "dana izan da positiboa". Emaiza aldetik be, balorazio positiboa egin dau Duñabeitiak baina bai Eder Martinezek, beste entrenatzaileak, bai berak postu hobia lortu ahal izan dabela uste dabe: "Hasieran beste partidu bi irabazita, bigarren postuagaitik be egongo ginan burrukan".

Sailkapenean gorago ez egoteko arrazoa, ligurean hasikerea izan zala uste dau Duñabeitiak. Izan be, partidu gehienak galdu ebezan. "Taldea barria zan, Ederrek eta nik ipini genduan sistema harrapetea eta taldea egokitea kostau zan", azaldu eban. Baina hori lortuta, "ikusi da kalidazeko jokalaria daukaguzala eta barriak gogotsu datoza". Holan, hurrengo urtean ligea irabazteko eta mailaz igoteko burrukatuko dirala dioe.



Ekaitz Duñabeitia.

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Beluzeta dego jabetza *Beluzeta dego proiektuak*

- Salmentan zein alokairuan
- Lurrak (irakiteak, lantak, basoak...)
- Etebiziak (jauki, baserriak, etxeak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Balorazioak

Irakin berriak erakitzeko
Enplematze
Arkitekto-proiektuak

- Garaie diseinua
- CEE eta ITE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Lehendakari Agirre 23. beheko - 1.º eta - 2.º
48100 - 48101 - 48102 - 48103 - 48104 - 48105 - 48106 - 48107 - 48108 - 48109 - 48110 - 48111 - 48112 - 48113 - 48114 - 48115 - 48116 - 48117 - 48118 - 48119 - 48120 - 48121 - 48122 - 48123 - 48124 - 48125 - 48126 - 48127 - 48128 - 48129 - 48130 - 48131 - 48132 - 48133 - 48134 - 48135 - 48136 - 48137 - 48138 - 48139 - 48140 - 48141 - 48142 - 48143 - 48144 - 48145 - 48146 - 48147 - 48148 - 48149 - 48150 - 48151 - 48152 - 48153 - 48154 - 48155 - 48156 - 48157 - 48158 - 48159 - 48160 - 48161 - 48162 - 48163 - 48164 - 48165 - 48166 - 48167 - 48168 - 48169 - 48170 - 48171 - 48172 - 48173 - 48174 - 48175 - 48176 - 48177 - 48178 - 48179 - 48180 - 48181 - 48182 - 48183 - 48184 - 48185 - 48186 - 48187 - 48188 - 48189 - 48190 - 48191 - 48192 - 48193 - 48194 - 48195 - 48196 - 48197 - 48198 - 48199 - 48200

Olaetxe
OPTICA OPTICA

- Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arang 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
74 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

begitu
eus

Kili-Kili
Ameyo eta Puzitubano

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 61

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza

Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Udabarria bertsotan 2023

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea A multzoa

DIMA
Maiatzak 11
Dimako Eskolan, 18:30ean

www.bertsosale.eus

- Aitor Arrutia Azqueta
- Ander Sarriugarte Garcia
- Iker Garitagoitia Astigarraga
- Iñaki Iturriotz Zuluaga
- Koldo Gezuraga Seijido
- Peio Lago Iturriaga

Gai-emailea: Igor Menika Bengoetxea

Sarriegak: www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: **Bizkaia**
Berebizitza: **bbkE**
Dimako Udala
Espartakoa: **begitu**

MARRAK
paperdenda

MAIATZEAN EROSI MOTXILA EDO ESTUTXE BAT ETA %15EKO DESKONTUA LORTU!

Derikofu kupola ebaki la dendan aurketu.
EZ GALDU AUKERA!

*Erosketa bakoitzean kupoi bakarra erabili daiteke
* Ez da beste promozio batzuekin bateragarria

MENDIA

Upo Galapan, Areatzako mendi lasterketea jaio da

Erredakzioa

Karpoko jaiak aprobetxatuz, Areatzako I. Mendi Lasterketea antolatu dabe Lamino Kirol Klubak eta Udalak. Maiatzaren 6an estreinauko da. Lasterketeak 14 km eta 800 metroko desnibela dauka.

Mendi lasterketa herrikoia egin gura izan dabe antolatzaileek "edozeinek egin ahal izateko modukoa, bai distantzia, bai desnibel adetik". Ibilbide zirkularra dauka;

Karpoko landa gunean izango ditu urtekera eta helmuga. Lasterkariak 09:30ean ekingo deusie karrerari eta, ibilbidearen erdian, 7. kilometroan, izango da horniketa puntua. Lasterketeari izena emoten deusian Upo mendiaren tontorra, 10. kilometroan zapalduko dabe.

Izen-emotea zabalik dago <https://upogalapan.blogspot.com> helbidean. Asegurua, dorsala eta horniketea, izen-emotearen sei euroko prezio barruan dagoz.



XAKEA

Mikel Menesesek irabazi dau Arratiako Xake Txapelketea

Erredakzioa

Mikel Menesesek irabazi eban aprilaren 22an Artean jokaturako Arratiako Xake Txapelketea, Nazar Zeveruh ukrainarrari irabazi ostean. Hamabost personak hartu eben parte 20 minutuko partidak danak danen kontra jokatuz.

Areatzako Xake Bizi Elkarteak eta Arteako Herriko Bentak alkarlanean antolatu eben txapelketea. Igazko abenduan be antolatu zan txapelketa bat eta bagilean beste txapelketa bat egin gura dabela azaldu deutso BEGURI antolakuntzeak. Txapelketez gainera, ikastaroak be antolatu gura ditue jentek xakean jokatzen ikasi eta zaletasuna bultzatzeko.



FUTBOLA

Gizonezkoen Arratia A taldea lidertzan dago eta esku-eskura dauka mailaz igotea

Lau jardunaldiren faltan gizonezkoen Arratia A lidertzan dago eta esku-eskura dauka mailaz igotea atzen partidua erraz irabazi ostean. Gizonezkoen Arratia B eta Lemoako Harrobiren arteko derbia jokatu zan atzen jardunaldian eta lemoaztarrek eroan ebezan hiru puntuak etxera tensino handiko partiduan.

Erredakzioa

Aprilaren 29an jokatu eban Arratiako gizonezkoen A taldeak Urbietan Zaldia A taldearen kontra eta nagusitasunez irabazi eban partidua, 5-0. 30. jardunaldiren ostean Arratia lider da 64 puntugaz eta 8 ateraten deusaz bigarrenari lau jardunaldiren faltan. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau bigarren sailkatua dan Otxarkoagaren kontra maiatzaren 7an, 18:30ean, eta irabazi ezkerro matematikoki Lurraldeko Ohorezko Mailara igotea lortuko dau Igorreko taldeak.

Andrazkoen Arratia A taldeak aprilaren 30ean jokatu eban bigarren sailkatua dan Eibar B taldearen kontra etxetik kanpo eta 2-0 galdu eban. 28. jardunaldiren ostean eta partidu biren faltan ligea amaituteko, Arratia A hamargarren postuan dago 35 puntugaz. Datorren partidua maiatzaren 7an, eguerdiko 12:00etan, Tolosa taldearen kontra jokatuko dau Urbietan eta liga honetan etxean jokatuko dauan atzen partidua izango da.

Andrazkoen Arratia B taldeak be etxetik kanpo jokatu eban

aprilaren 30ean Bizkeneskak taldearen kontra eta 3-0 galdu eban. 28. jardunaldiren ostean Arratia B zortzigarren postuan dago 37 puntugaz. Datorren partidua Bizkerre C taldearen kontra jokatuko dau Urbietan hilaren 6an, arrastiko 17:45ean.

Derbia Lemoakoentzat

Aprilaren 30ean, eguerdian, Arratia B eta Lemoako Harrobi taldeen arteko derbia jokatu zan Urbietan, 500 lagun baino gehiago batu ziran Igorren eta jente asko hurreratu zan Lemoatik. Lehen zatia bardinketeagaz amaitu zan

baina bigarren zatia hasi eta segiduan Lemoako taldea aurreratu zan markagailuan. Atzen emaitza 0 eta 2 izan zan.

30. jardunaldi jokatu ostean Lemoako Harrobi bosgarren dago sailkapenean 54 puntugaz eta Arratia B bederatzigarren 39 puntugaz.

Lemoako Harrobik datorren partidua Arlonagusian jokatuko dau Amorebieta B taldearen kontra maiatzaren 6an, arrastiko 18:00etan eta Arratia Bk etxetik kanpo jokatuko dau Etxebarri B taldearen kontra hilaren 6an, 18:15ean.



Arratia B eta Lemoako Harrobiren arteko partidua.

BOLA-JOKOA

Oba taldeko Ana Goitiak Bizkaiko Banakako txapela jantzi dau

Erredakzioa

Bizkaiko Banakako Txapelketako finalak aprilaren 22an jokatu ziran Amorebieta-Etxanoko Gure Kiro-lak bolalekuan, eta Oba taldeko Ana Goitia izan zan txapelduna andrazkoetan. Gizonezkoetan San Pedro Boroa taldeko Pedro Luis "Urtain" izan zan txapelduna.

Hurrengo astegienean jokatu ziran Binakako leku berean.

Komarkala

Bitartean, Bizkaiko LVIII. Komarkalaren Txapelketeak aurrera jarraituten dau eta Arratiako taldeak ez dagoz sailkapen orokorreko taularen goiko partean. Hiru tiradaren faltan, Oba bosgarren da, Lemoa

seigarren eta San Kristobalek zarratuten dau sailkapena, ha-maikagarren lekuan. Maiatzaren

6an eta 13an, Oban eta Artauen, hurrengo hurrengo, egongo dira tiradak, 16:00etatik aurrera.



Ana Goitia.

URTEURRENA

Urteurrena ospatuko dau Laminetxe Gaztetxeak

Erredakzioa

Urteurren jaia maiatzaren 13an izango da. Txupina, bazkaria, kontzertuak... eguerdiko 14:00etatik gaueko ordu txikiak arte luzatuko dan egitaraua prestatu dabe Areatzako gaztetxeok.

Jaiari hasikerea emoteko, txupina botako dabe Gaztetxe aurrean, irakurketa bategaz la-gunduta. Gero, 15:00etan, errota ondoan, gaztetxe gainean dagoan anfiteatro barrian, alkarre-gaz bazkalduko dabe urteurrena ospatu gura dabenek. Bazkari txartelak Bixer eta Hagina tabernan dagoz salgai, 10 euroko prezioan eta eskaintza begetarianoa eta beganoa be badagoz.

Arrastiko 17:30ean jokatu da Gaztetxeak eta Zaztapparrak Asti Taldeak alkarlanean antolatutako Frontenis Txapelketaren finala. Eta errifak erosita euki ezker, finaleko partiduen in-

teresari gehituko jako, zozketea-rena; han egingo da-ta zozketea. Ondoren, 19:30ean, bafflepoteoa egongo da herritik.

Kontzertuak

Kontzertuak 22:00etan hasiko dira Gaztetxearen kanpokaldean. Zeinke eta TOC taldeek joko dabe eta ostean, gaztetxe barruan, dj Feligaz jarraituko dau jaiak.

Zeinke 2014an sortutako rock taldea da, Karabie Gaztetxeari lotutakoa eta Arratiako talde ezagunen artean dagoana. Hiru lan daukiez arratiarrek kalean. Lehengo, *Sormena, kemena* (2016) diskoa izan zan, eta 2021ean, *20 urte harrikerrek* abestia eta *Anti-heroiak* sei kantu batzean dituan EPa atera eben, hain zuzen.

TOC Mungian sortutako rock taldea da. 2021ean, 12 abesti dituan *Zidazun* disko kontzeptuala kaleratu eben Mungiaok.



ZINEKLUBA

Dios es mujer y se llama Petrunya Macedoniako filma dakar Igorreko Zineklubak

Erredakzioa

Maiatzaren 11n, 20:00etan, Teona Strugar Mitevska zuzendariaren *Dios es mujer y se llama Petrunya* 2019ko filma ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan. Filmak herri bateko lehiaketa bat irabazten dauan andrazko baten istorioa kontetan dau. Lehiaketan gizonak bakarrik parte hatzean dabenez, ez deusie errekonoziduten. Pelikuleak Europar Parlamentuko Lux saria irabazi eban.

Sinopsia

Urtero, urtailean, jaialdi bera izaten da Macedoniako herri txiki baten: abade batek kurutzte bat botaten dau uretara, gizon talde batek bilatu behar dauana. Esaten da topetan dauanak betirako zorte ona izango dauala bizitzan.

Aurten, oster, andra bat Petruniya (Zorica Nusheva) izan da topetako zortea euki dauana. Antxinako kode moral eta sozialtan oinarritutako gizarte baten bizi danez, gizonen komunitadea haserre egoteko eskubideagaz sentiduten da. Zelan da posible andra bat ausartzea gizonak egiten dabena egitera eta gainera arrakastea izatea? Baina Petrunya lehiaketako irabazle legitimoa sentiduten da eta ez dago kurutztea itzultzeko prest.



ZINEA

Zinegoak jaialdiko sei film labur egongo dira ikusgai Igorren hilaren 12an

Maiatzaren 12an, 20:00etan izango da emonaldia Igorreko Lasarte Aretoan. Maider Oleagaren *Irrits*, Marta Nietoren *Son*, Eduardo Wahrhaftig-en *Dating Internet Strangers*, Alejandra Buenoren *Ezohikoak*, Isa Luengo eta Sofia Esteveren *Perpetua felicidad* eta Raul Barrerasen *Arnasa* dira ikusi ahal izango diran filmak.

Erredakzioa

Zinegoak, LGTBQ+ zinema eta arte eszenikoen jaialdiak, 20. urteurrena ospatuko dau aurten eta bagilaren 26tik garagarriaren 1era izango da Bilbon. Ha-ta guzti be, herrietan maiatzean izango dira film laburren emonaldiak.

Sei film

Maider Oleagaren *Irrits* 15 minutuko filmak Euskal Film Laburren Huhezinema 2023 saria irabazi eban urtailean. Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dauan Laburbiran be ikusi ahal izan zan *Irrits*. Pelikulako protagonistak, Izaro eta Clara, 17 urteko nerabeak dira eta haurrentzako udalekuetan, begirale lanetan dabiz. Halako baten, Clarak irrikaz mosukatzen dau Izaro. Izaro Nieto, Angela Echaniz Oyarzabal, Erika Olaizola eta Xabier Elizalde dira antzezleak.

Marta Nieto zuzendariaren lehenengo lana da *Son*. Film honetan, ama eta seme trans baten arteko hartu-emona momentu zehatz baten kontetan da. Basoan, euren arteko alkarrizketa baten ikusiko da 6 urteko umea trans-a dala eta eskolan *bullying*-a egiten deusiel.

Eduardo Wahrhaftig brasildarraren *Dating Internet Strangers* animazinoko filmak, ligetako aplikazioak hartzean ditu gaitzat. Izan be, hamar milioi persona baino gehiagok erabilten



ditue aplikazinoak. Ondo urtendako eta txarto urtendako istorioen bilduma bat dakar zuzendari brasildarrak film honetan.

Alejandra Buenok euskal matriarkaduren mitoa deseregi gura dau *Ezohikoak* pelikuleagaz. Helburua da erakustea gure historia, estereotipo eta idealetatik kontau dala, eta andrak ez dirala ia agertu historian. *Ezohikoak* bideosormena da, Gasteizko Pilar Arostegi Udaltzako Artxiboak itxitako argazkiak egindakoa, Gazte Sortzaileak 2021 bekeari esker.

Garazi Urkola da Isa Luengo eta Sofia Esteveren *Perpetua felicidad* filmeko protagonistearen papela egiten dauan aktorea. Pelikuleak 15 urteko Almarean istorioa kontetan dau. Almak

herriko koruan kantetan dau eta bere sexualidadea deskubriduten doa. Bera aitak, abesbatzako zuzendariak, ahotsa galdu dau laringetomia batengaitik. Udako jaietako kontzertua prestatzen dabiz eta eguna hurreratu ahala aita-alabaren arteko tensinoak handituz doaz.

Raul Barreras zuzendariaren *Arnasa* pelikuleak osotuten dau film seikotea. Zorion Egileor eta Eneko Sagardoy dira film honetako aktoreak eta Hernaniko baserri baten kokatuta dago. Raul Barrerasen *Arnasa* lanean, edadekoen zaintza eta LGTBQ kolektiboan agertzen diran arazo batzuk landuten ditu. 2022an, Oarsoaldeako Mintzagun euskerazko film labur onenari saria irabazi eban *Arnasa*.

LIBURUA

Erresistentziarako gorputzak: bollerak saiakerea kaleratu dau Eva Perez-Pons lemoztarrak

Erredakzioa

Susa argilatetzeko Lisipe bildumaren 13. zenbakia da Lemoako idazlearen saiakerea. *Erresistentziarako gorputzak: bollerak* izeneko lanean, Euskal Herriko Lesbiana Feministen Mobimentuaren hastapenak jasoten ditu,

gaur egungo bolleraren burrukearen erroak eta sinergiak hobeto ulertu ahal izateko, eta heterossexualidadearen analisi teorikoa egiten dau eta parte-hartze politikorako be planteamentuak egiten dauz, besteak beste.

Mobimentu feministan, antimilitaristan eta LGTB mobimentuan

Perez-Ponsek egindako ibilbidearen hausnarketearen ondorioa da argitaratu barri dauan saiakerea. Lemoztarra ingeniaria eta poeta be bada eta *Zaharkitze programtua* poesia liburua-gaz Blas de Otero-Bilbo Uria Nazinoarteko XII. Poesia Lehiaketea irabazi eban 2019an.

BERTSOLARITZEA

Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus Zeanurin egongo dira

Erredakzioa

Zeanuriko udabarriko kultur programazioaren barruan, Kultur Batzordeak bertso-afaria antolatu dau maiatzaren 6rako. Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariak izango dira bertan. Afarria 21:00etan izango da Jubiladuen tabernan. Afarirako txartelak bertan erosi daitezke maiatzaren 4ra arte edo 40 txartelak agortu arte.

Bertso eskoleak antolatuta, urtero egiten da bertso-afaria Zeanurin, batzuetan udabarrian eta beste batzuetan udagoiengan. Urtaileko bertso-saiora ezin izan ziran etorri Lujanbio eta Arzallus,

Euskal Herriko txapelduna eta txapeldunordea. Baina Zeanurira ekartea gura eben antolatzaileek eta urteroko beste hitzorduan, bertso-afarian, izango dira, 40 bertsozaleren gozamenerako.

Bertso-afaria bertsotarako genero lasaiagoa

Bertso txapelketen aldean, bertso-afarian "beste lasaitasun bat dago, umorerako leku gehiago, bertsolariak hurrago dagoz, gai librean arituten dira... tragoak be badagoz eta umore gehiago dago bai bertsolarien, bai entzuleen aldetik" azaldu deutso BEGURI Eñaut Intxaurrega Zeanuriko bertso eskolakoak.



MAGIA

Magia ikuskizuna egongo da Zeanurin hilaren 14an

Erredakzioa

Tor eta Txoborro magoek, Akelar taldeak, *Aztikeriak* magia ikuskizuna eskainiko dabe maiatzaren 14an, 17:00etan, Zeanuriko plazan. Ikuskizun honetan, karta trukuak, agerpenak, desagerpenak eta eskapismoa egingo dabe.

Trukuak, narrazino baten barruan dagoz eta holan dino lanaren sinopsiak: "zer gertatuko litzateke mago batek, loak hartuta, bere ikuskizunera joatea ahaztuko baleu? Egoera hau oinarri hartuta, Tor eta Txoborro magoek alkarlanean magia saio guztiz barritzailea sortu dabe. Uniberso magiko bat, antzerkia eta magia bilbatuz, dana logikatik aldentzen dana. Baina... dan-dana? Kartak, agerpenak, desagerpenak eta beste balentria artean, eskapismo handi batez ausartzen dira eta agian ikusle batek hegaz egingo dau".



BERTSOLARITZEA

Udabarria Bertsotan Bizkaiko Txapelketako saioa Diman

Erredakzioa

Maiatzaren 11n, 18:30ean, Dimako eskolan, Udabarria Bertsotan, Bizkaiko Txapelketarako sailkapen faseko saioa jokatu da. Bertan, Igorreko Iñaki Iturriotz, Aitor Arrutia, Iker Garitagoitia, Koldo Gezuraga eta Peio Lago neurtuko dira. Gai-emoile lanetan, Arantzazuko Igor Menika Bengoetxeak jardungo dau.

Maiatzaren 4an hasi eta 25ean amaituko da sailkapen fasea. Zortzi saio egingo dira eta eskualde guztietako 48 bertsolarik hartuko dabe parte; tartean, Arratiako bik. Maiatzaren 4an, Urdulizen, Illart Gumuzio saiatuko da hurrengo faserako txartela lortzean eta 11n, Iñaki Iturriotz Diman.

Udabarria Bertsotan sailkapen fasean bertsolariak hiruna bertso ofiziotan zortziko nagusian, hiruna bertso ofiziotan zortziko txikian eta bakarkako lanean, puntua emonda bertso bi zortziko txikian eta gaia emonda bertso bi doinu eta neurri librean egin behar dabez.

Sarrerak salgai

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean eta, agortu ez badira, txarteldegian erosi daitezke. Fase honetako sarrereak 3 euro balio dau, bazkide sarrereak euro bi eta 18 urtetik beherakoek doban izango dabe sarrerea, webgunean hartutako gonbidapenagaz. Interneteko sarrerak agortzen ez badira, txarteldegia 18:00etan zabalduko da.



DUNBA

Erronken eguna ospatu genduan Arteako eskolan

Joan dan martiaren 24an, Arteako eskolan Erronken eguna ospatu genduan, giro alai eta atseginean.

Arteako eskolea

Guraso alkartea patioaren eraldaketan buru-belari ibili da atzen urteotan eta oindino amaitu ez badabe, aldaketa honek bistartzeko Erronken eguna antolatu genduan eskoleak eta Guraso alkartea. Patioaren eraldaketa hezkidetzeta eta antolaketa barriak ardatz hartuta emon da eskolan, baliabide barriak, material anitzak eta aukera dibertigarriak opatuz ikasleei.

Lehenengo, ikasle talde bakoitzak prestatutako erronkak burutu ebezan gainontzeko ikasleek;

abilezia, matematika, logikea, talde lana, kooperazioa eta patioko material barriak erabilia. Ondoren, behin erronka kooperatibo honek burutu ostean, Guraso alkartea osteko jaia antolatu eban. Musikeaz, krepez eta irabiatuez eta adinarteko erronka kooperatibo barriez gozatu eban heldu zein umeez.

Egun sano polita eta aberasgarria pasatu genduan; eta lehenengo bai, baina seguru atzena ez dala izango.

Eskerrik asko egun hau posible egin zenduen danoi!



Erronken eguna.



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

FURGONETEA SALTZEAN DOT

1998 urteko Peugeot Boxer furgonetea, egoera onean, saltzean dot.

Interesdunek deitu telefono honetara: 688 638 906.

MOBIKORTASUN MURRIZTUA DABENENTZAT MOTORRA SALGAI

Mobikortasun murriztua edo desgaitasuna daben personentzako motorra. Libercar Urban Scooter elektrikoa. Bateria barria 2022an ipinita. Ez da erabilten 2022ko bagilatik. Interesdunek deitu 676 936 010 telefonora.

TXAKURRAK OPARITUTEN DODAZ

Ama mastina da eta aita border collie-a. Lau hilebete daukiez. Interesdunek deitu 657 724 435 telefonora.

LONGEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarra auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonora.

BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

LANA

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528.

PSIKOLOGIA ZENTROA ESKUALDATZEN DA

Igorreko San Juan auzunean, baimen guztiakaz eta jardun betean. Interesdunek deitu 600 634 272 (Sagrario) telefonora.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:



1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Anonyme Popular* ikuskizunerako.

Mikel Urriz (Areatza)
Jose txu Iturriaga (Areatza)



2 Udabarria bertsotan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Dimako saiorako bina sarrera.

Koldo Zelestino (Dima)
Maidar Agesta (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 36
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAH KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3- 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tlf. 94-673-70-87
Tlf. 609-79-40-54

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!
Informazioa: 649 979 115 eta inigoirua@begitu.eus

ARRATIAKO LEHEN ENPLEGU AZOKA



ERR^{OT}TA

ARRATIAKO GARAPENERANTZA

ETORKIZUNA ZURE ESKU

Adi, gazte!

*Ezagutu Arratiako
enpresak eta eman zure
kurrikuluma*

MAIATZAK 10, 09:00etatik 14:00etara
ZULAIAR IKASTEGIKO ARETO NAGUSIAN



ARRATIAKO VDALEN
MANKOMUNITATEA